

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Hutsen zuzenketa, ALHAOren 3 zenbakian, 2023ko urtarrilaren 9an, argitaratutako 22 iragarrian: 2/2023 Foru Agindua, urtarrilaren 3koa, aldatzen duena abenduaren 20ko 772/2021 Foru Agindua, zeinaren bidez onesten baita 190 eredu, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergen jasotzen diren atxikipen eta konturako sarreraren (lanaren etekinenak, zenbait jarduera ekonomikoenak, sarietak eta errenta egozketa batzuenak) urteko laburpenarena. Horrez gain, diseinu fisiko eta logikoak eta lanaren etekinaren, jarduera ekonomikoen eta sarien ziurtagiriari buruzko 10-T eredu ordenadorez zuzenean irakurtzeko moduko fitxategiak jartzeko

Iragarkia argitaratzean zenbait huts antzeman direnez, berriro argitaratuko da aipatutako foru aginduaren artikuluko bakarraren Bost atala, testu honekin:

Bost. Eremu berri bat gehitzen da "haurrentzako laguntza osagarria"; 322 posizioa duena, foru aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 190 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 motako erregistroetan (hartailearen erregistroa), honela geratzen da (aldi berean "zuriuneak" eremuaren posizioak eguneratzen dira):

POSIZIOA	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
322	Numerikoa	HAURRENTZAKO LAGUNTZA OSAGARRIA Datu gehigarria, L.29 gakoari dagozkion prestazioetarako soilik. Eremu honetan zenbakizko kodea adierazi behar da nahitaez, honako zerrenda honen arabera:
		1 Ordainutako prestazioan sartzen badira, ekitaldian ordaindutako hilekoetako edozeinetan, Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarrera ezartzen duen abenduaren 20ko 19/2021 Legean jasotako haurrentzako laguntzaren osagarriari dagozkion zenbatekoak.
		2 Ordainutako prestazioan sartzen ez badira, ekitaldian ordaindutako hilekoetako edozeinetan, Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarrera ezartzen duen abenduaren 20ko 19/2021 Legean jasotako haurrentzako laguntzaren osagarriari dagozkion zenbatekoak.
323-500	—	ZURIUNEAK

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urtarrilaren 10a

Zuzeneko Zergen Zerbitzuaren burua
MARÍA JESÚS PALACIOS ESPIGA